



Korpus eguneko arratsaldeko dantzak

Korpusietako jaixak gaiñian dittugunez, laister helduko xaku Oñatiko kale eta auzuetan dantzarixen fan-etorriak ikusteko eta euren kaskaiñolak entzuteko aukeria. Makiña bat ordu sartzen dittue dantzarixok Korpus aurreko egunetan hasitta, batian eta bestian eten bariko ibilleretan. Baiña ekiñaldirik gogorrena, jakiña, Korpus egunian bertan eukitten daue: goiz asko ekitten xaue parrokiarako bidian santuen karriuari lagunduaz; elizako meza nagusittan be dantza egitten daue aldarian iragoko berrogetaka urtietan; eta batez be prozosiñuan bertan jarduten daue aurrera eta atzera fan-etorri ikusgarrixan.

Baiña dantzok eztira akabaitten goizian. Arratsaldian be saixo ederra egitten daue Foruen plazan, Oñatiko korpus-dantzen errepertorixo osua eskiñiz: kontrapasa, banakua, kuadrúa, launakua, zortzikua eta arkudantzia. Eta jaıldxorri amaieria emuteko, aureskuia egitten da. Horretarako, ikusten daguen jentiaren artetik neska bat atara eta bere aurrian buruketan dittue aureskuaren zati bixak. Gero beste neska batzuk be aukeraketan dittue aureskuia borobilketako eta neska-mutillok sueltuan dantza egiñaz bukaketan da jaixa.

Dana dala, orain dala hirurogei urte justu aldaketaxo bat egon zan. Neskak ikuslien artetik atara biharrian, aurretik gertatutako taldetxo bat izan zen aukeratutakua. Jose Mari Agirrebaltzategi abade oñatiarrak gabonetarako eta beste ospakizun batzuetarako sortutako taldeko dantzarixak ziran. Poxpolin jantzitta urten euen, ikusi zeikenez. Hori urte haretan bakarrik egin zan. Hona, ezkerretik eskumara, neska-mutil gaztion izenak:

Jose Luis Oleaga; Manttoni Uranga; Rexu Letamendi; Rosarito Berrikano;
Pili Mugartza; Amparo Billar; X. X.; eta Jexus Altzelai.

J.E

Fotografixia 1955eko bagillaren 9an atarata dago eta guri Rexu Letamendik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Rexuk berak, Amparo Billarre eta Jexus Altzelaik emundakuak dira. Milla esker!

> ZUZENKETIA

Orain hurrengo hilleko argazki zaharrian akats bat egin geben. Erdiko illarako ezkerreko lehenengo mutiko bixak eztira Ramon eta Juanito Arkauz, Ramon eta Juanito Zelaia baiño, Zubillagako Kukarrueneko anae birkixak.